# 141 *Bilatu bakezaleak*

## (Lukas 10:6)

1. Jesusek argi agindu zuen
«egin egia ezagun»,
hala zen bera saiatzen;
Jehobaren mezua zabaltzen,
maitasunez
ardiak zituen bilatzen.
Atez ate ‘ta kaleetan
jende guztiari esan:
«Laster arazorik ez da izanen».

(*ERREPIKA*)
*Lur osoan*
*bakezaleen bila gabiltz,*
*salbamena*
*nahi duen orori eskainiz,*
*txoko denak*
*predikatuz.*

2. Denborak aurrera egiten du,
guk bila jarraitzen dugu
ahal dena salbatzeko.
Maitasuna da gure indarra
sendatzeko
bihozmin, samin ‘ta negarra.
Entzun nahi duenik balitz
herriz herri bila gabiltz.
Izan adore ‘ta segi aurrera!
(*Errepika*)

(Ikusi Is 52:7; Mt 28:19, 20; Lk 8:1; Erm 10:10 ere)


© 2015 Watch Tower Bible and Tract Society of Pennsylvania